

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU-ERASOAK
JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZA HOBEA
EMATEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENAREN LAU
URTEKO APLIKAZIOAREN BALANTZEA.

Erakunde Arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

2001eko urriaren 18an, herri honetako gorengo agintariek¹ *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko akordioa* sinatu zuten. Lau urte igaro dira jada eta gure ustez oraingoa une aproposa izan daiteke aipatu akordioa sinatu genuen erakundeok hartutako konpromisoak gogoratzeko eta, bide batez, urte horietan zehar egindako lanari buruzko balantzea egiteko.

Gai horretan erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko asmoz sinatu zen erakunde arteko akordioa, indarkeria hori jasaten duten biktimei babes osoa bermatze aldera osasun, polizia, epaile eta gizarte esparruetan. Horretarako, batetik, kasu hauetan parte hartzen duten profesionalak jarduteko protokoloa ezarri zen eta, bestetik, akordioa sinatu zuten erakundeek konpromisoa hartu zuten Akordioaren edukiak profesionalen artean ezagutarazteko, prestakuntza-planak abiarazteko eta akordioa benetan aplikatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide material eta teknikoak eskaintzeko.

Akordioaren bidez, era berean, berorren jarraipena egiteaz gain erakundeek hartutako konpromisoak benetan betetzea sustatzeko diren organo bi eratu ziren: Jarraipen Batzordea² eta Erakunde arteko Talde Teknikoa, Akordioan parte hartzen duten erakundeetako politikariek eta teknikariek osatzen dituztenak hurrenez hurren. Akordioa onetsi zenetik Jarraipen Batzordeak 11 bilera egin ditu eta Erakunde arteko Talde Teknikoak 15; ikusiko dugun bezala, gainera, bilerei esker gai horretako lanak eta koordinazioa nabarmen areagotu dira.

Akordioa zenbateraino bete den jakiteko urtero egiten diren ebaluazioen arabera, parte hartzen duten erakundeek (bakoitzak berari dagozkion eskumenen esparruan) akordioa sinatu zutenetik guztira 434 jarduera burutu dituzte: 109 jarduera 2002. urtean, 145 jarduera 2003an eta 180 jarduera 2004an. Beraz, jarduera kopuruak urtean %30 inguruko gehikuntza izan du.

Akordioa sinatzeak, gainera, euskal botere publiko guztiek gai horretan esku hartzea ekarri duela esan daiteke; izan ere, Akordioan parte hartu duten erakundeek eta gainerako euskal erakundeek burututako jarduerak aztertuz gero argi ikus daiteke akordioa sinatu zenetik EAEko erakundeek jarduera askoz gehiago egin dutela emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko eta berau erazteko. *Euskal*

¹ Lehendakaria, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren ordezkari gisa; EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakaria, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkari gisa; EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko fiskalburua, Fiskaltzaren ordezkari gisa; hiru Ahalduen Nagusiak, foru aldundien ordezkari gisa; EUDLEko lehendakaria, euskal udalerrien ordezkari gisa eta Legekarien Euskal Kontseiluko eta Sendagileen Euskal Kontseiluko lehendakariak, elkargo horietako kideen ordezkari gisa.

² Emakundeko zuzendaria da batzordeburua, eta gainerako kideek sailburu, sailburuorde edo antzeko karguren bat dute ondoko erakunde hauetan: Epailatza, Fiskaltza, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariitza Saila, Herrizaingo Saila, Osasun Saila, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Foru Aldundiak, Eudel, Abokatuen Euskal Kontseilua eta Sendagileen Euskal Kontseilua.

Autonomia Erkidegoan Emakumeentzako Ekintza Positiborako III. Planaren ebaluazioan ematen den informazioaren arabera, 2001. urtean 110 jarduera egin ziren emakumeen kontrako indarkeriari beren beregi heltzen dion Planaren azpiarloan eta 2004. urtean 224. Hau da, Akordioa onetsi aurreko urtean burututako jardueren bikoitza baino gehiago burutu zen 2004. urtean.

Bestalde, erakunde bakoitzak bere eskumenen eremuan egindako esku-hartzeekin batera Akordioaren esparruan baterako jarduera ugari egin dituzte, aipagarrienak hauek ditugu:

- **Akordioa aplikatzeko urteko planak**, parte hartu duten erakundeek ekitaldi bakoitzean egingo dituzten jarduerak biltzen dituztenak.
- **Jarraipenari eta ebaluazioari buruzko urteko txostenak**. Txosten hauetan, batetik, akordioa sinatu duten erakundeek urte bakoitzean gauzatu dituzten ekintzak zehazten dira, Akordioko jarduteko protokoloan jasotzen diren neurriak eta jarraibideak benetan aplikatu direla bermatzearen; bestetik, erakunde bakoitzaren esku hartzeko eremuan jarduteko protokoloa zenbateraino bete den irizteko erakundeek egindako balorazioa jasotzen da.
- Emakumeen aurkako indarkeria erazteko nazioarteko eguna ospatzeko asmoz urtero azaroaren 25ean egiten den **erakunde arteko "Emakumeen aurka indarkeria gehiagorik ez"** izeneko **kanpaina**. Kanpaina honen bidez tratu txarrak jasan ditzaketen biktimei egun dituzten aukerei buruzko informazioa ematen zaie; aurten, gainera, prentsan eta irratian publizitate-iragarkiak zabaltzen dira eta kartelak banatu dira.
- **Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana (2002-2004)**. Esku hartzeko lau esparrutan banatuta, 17 neurrik osatzen duten plana: biktimei informazioa ematea³; polizien babesa⁴; epaiketa-prozesuan babesa ematea⁵ eta babes soziala⁶.

³ Biktimei informazioa emateko materialak landu dira euskarri eta hizkuntza ezberdinetan, erasoen aurrean zer egin azalduz eta euren segurtasunerako neurriak proposatuz.

⁴ Biktimei polizia-babesa emateko, 112 (SOS DEIAK) larrialdietarako zerbitzuan entzumen-arazoak dituzten biktimeentzat fax-zenbakiak eskaintzen dira eta Ertzaintzan biktimak jarraitu eta babesteko sistema bereziak ezarri dira, besteak beste: Fiskaltzarekin aldizka koordinazio-bilerak egitea, jarraipenerako prozedura informatikoa sortzea, sakelako telefonoak ematea eta kasu larrienetan bizkartzain bezala jardutea.

⁵ Epaiketa-prozesuan babesa emateko, ofiziozko txanda berariazkoak eta "familientzat elkarteguneak" eratu dira; "epaiketa lasterrak" ezartzeko eta ebaluatu ahal izateko giza baliabideak eta baliabide materialak jarri dira; biktimei laguntza emateko zerbitzuak areagotu dira eta babes-aginduen aplikazioa errazteko koordinazio-protokoloak onartu dira.

⁶ Babes soziala emateko, gizartea sensibilizatzeko aipatu erakunde arteko kanpainak egin dira; heriotzak gertatzen direnean erakundeen erantzuna bideratzeko protokolo bat edo prozedura bat onartu da; biktimei laguntzeko boluntario-erakundeentzako diru-laguntzak gehitu dira; *Etxeko tratu txarren biktimeentzako babes eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa* bat onartu da; *Genero-indarkeriaren biktimea diren emakumei babestutako etxebizitzak emateko plana* onartu da; Eusko Jaurlaritzak enplegua bilatzeko ematen dituen diru-laguntzei buruzko deketuak aldatu dira, etxeko tratu txarrak jasaten dituzten biktimak beren beregi diru-laguntzen onuradun bezala sartzeko eta, azkenik, Eudelek eta Emakundek lankidetzaz

- **Gizarte-zerbitzuetako profesionalen jarduteko gida.** Gida honetan, datuak biltzeko fitxa bateratu bat eta **emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako proposamen terminologikoa** daude. Hain zuzen ere, Jarraipen Batzordeak gaur bertan egindako bileran azken agiri hauek onetsi ditu eta laster zabalduko dira.

Gaur egun gure Autonomia Erkidegoan tratu txarren biktima guztiek ziurtatua dute eguneko 24 orduetan laguntza publikoa eta doakoa larrialdietan. Laguntza horrek barne hartzen ditu, babes poliziala, laguntza sanitarioa, laguntza juridikoa eta harrera baliabide bat izateko eta hara iristeko laguntza. Larrialdietarako laguntza hau lortzeko bide nagusia zera da: Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren menpe dagoen SOS-Deiak zerbitzuak larrialdietarako duen 112 doako telefonoa. Telefono horrez gain, foru aldundietako eta udaletako larrialdietarako gizarte zerbitzuek kudeatzen dituzten 24 orduko beste telefono batzuk daude:

Gasteizko Udalerrirako 900 701 700 telefonoa
Arabako Lurralderako 945 134 444 telefonoa
Bilboko Udalerrirako 944 701 460 telefonoa
Gipuzkoako Lurralderako 943 224 411 telefonoa

Bat-bateko laguntza ematen duten baliabide hauez gain, gure Erkidegoan etxeko tratu txarren biktimentzako 51 harrera zentro eta etxebizitza publiko dago: 13 Araban, 15 Bizkaian eta 23 Gipuzkoan. Hauek foru diputazioek eta udalek kudeatzen dituzte. Estatu mailan Euskadikoa da harrera baliabide gehien duen Autonomia Erkidegoa. 2004ko dauten arabera⁷, Estatuko harrera baliabide guztien ia %20a gure Autonomia Erkidegoan zeuden.

Harrera baliabide hauekin batera, Euskadiko Autonomia Erkidegoak doako gizarte zerbitzuen sare garrantzitsua du, etxeko tratu txarrak sufritzen dituzten emakumeei laguntza psikologikoa, juridikoa, ekonomikoa, soziala eta etxebizitzakoa ematen diena.

Ikus daitekeenez, erakunde arteko akordioaren ondorioz, erakundeek gai honetan lankidetzat estuagoa eta egonkorragoa dute eta horrek esku-hartze publikoa biziagoa eta koordinatuagoa izatea dakar. Nolanahi ere, oraindik lan handia egin behar dugu eta egindako lana hobetu behar dugu demokraziaren oinarriak ahultzen dituen orban soziala erauzi nahi izanez gero.

hitzarmen bat sinatu dute *Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko udalerrien sarea* sortzeko eta, honen bidez, gaiarekin lotutako programak eta jarduerak, esperientzien elkartrukea, koordinazioa eta baterako jardutea sustatzeko toki esparruan.

⁷ Iturria: *Memoria de Actuaciones contra la Violencia del Género realizada por la Administración General del Estado y las Comunidades Autónomas en el año 2004*. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.

Hori guztia aintzat hartuta, Akordioa sinatzen dugun erakundeok emakumeen kontrako indarkeriaren aurka borrokatzen jarraitzeko eta borroka hori areagotzeko hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu gaur publikoki. Zehazki, hurrengo urteetan hurrengoak burutzeko konpromisoa hartu dugu:

- Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Legea eta horrekin lotuta indarrean dagoen gainerako legeria benetan aplikatzea sustatuko dugu.
- Sentsibilizazioa eta prestakuntza areagotuko ditugu.
- Biktimei laguntzeko eta babesa emateko egun dauden baliabideen kalitatea eta koordinazioa hobetuko ditugu.
- Egungo programak eta baliabideak ebaluatuko ditugu, eraginkorrak diren jakiteko eta, hala dagokionean, beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko.
- Eskudun erakundeekin lankidetzan, indarkeria honi aurrea hartzea bultzatuko dugu, betiere hezkuntzaren, komunikabideen eta abarren bidez eta emakumeen autonomia pertsonala, ekonomikoa eta soziala sustatuz.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko azaroaren 25ean